

GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia --Goierriko euskaldunon aldizkari-- Debaldeko aldizkaria

GOIERRITARRA ALDIZKARIA.

13. zenbakia.

91ko Martxoa-Apirila



- ❖ HERRI BATEN ERRADIOGRAFIA: Nola pentsatzen dute ataundarrek?
- ❖ Joxe Mari TELLERIA SEGURRARRA: ARTISTA hutsa dugu
- ❖ Jon Mikel ARANOrekin «MALIZIA SORTA» liburua sortu duela eta
- ❖ JOXE AZURMENDI zegamar pentsalariaren artikulua
- ❖ GOIERRIKO «pizti» eta «ganadu»ak: ZAHARRAK BERRI
- ❖ Gazte-literatura, Goi-herri-literatura
- ❖ Loinazko Martin Deunaren onran hitz-neurtuak

- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASOÑDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M2.
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA, BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOKITURIK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO



LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarretza - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tfno: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tfno: 88 60 70

BEASAIN



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNIÓN Y EL FENIX ASEGURORAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA


TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 B E A S A I N

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

gaur
express

mensajeros-mezulariak
BEASAIN 88 89 38
88 83 17

EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

Isiltzen ez den zintzarria

13. zenbakia. 91.eko Martxo-Apirila

Debaldeko alea. Tirada: 1.500 ale. 1.000 suskripzio.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"

Kultur Elkartea. Dorre- etxea, behea (Correos azpia).

Tfna: 889612.

124 posta kutxa. Ordizia.

Publizitatearen eta dirulaguntzen sarrak: GK 01* 1.427.276-8

Publizitatea egin nahi duenarentzat jakingarri: orrialde batek 40.000 pe-zeta balio du. Horren arabera moduloen prezioa. 4.000, 6.000, 8.000, 12.000, e.a.-eko publizitate moduloak dituzu

2. etapaldirako orain arteko

Udal-Herri laguntzaileak: Olaberria, Itsasondo, Altzaga, Arama, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Ikaztegieta, Legorreta.

Onartu eta agindu digute: Zaldibia, Gaintza, Ordizia eta Beasaingoek.

Ukatu: Lazkaok

— Ormaiztegi, Ataun, Segura, Mutiloa, Zerain eta Zegamakoek zain.

Erredakzioa: Jon Mikel Arano, Xabier Narbarte.

Aholkulariak: Tere Irastortza, eta Andoni Sarriegi.

Ale honetan kolaboratu dute: Andoni Sarriegi, Maite Erauskin, Marife Saturdi, Ramon Ugalde, Mikel Aramendi, Joxe Azurmendi, Ion Imanol Iturrioz, Jexus Lete, Mikel Insausti, Mattin, Xabier Barandiaran, Pako Azanza, Ainhoa Galparsoro publizitate emaille, inkestatu eta berriemaileak.

Gure eskerrik beroenak: Kutxari, Eroskiri, Goierriko Udalei. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei (arazo txiki asko ditugu, dei egiguzu, zure aportaziotxo behar dugu), gauzak errazten dizkiguzue-ni eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenoi.

Fotokonposizioa, maketazioa eta inprimaketa: ANTZA.

Lege Gordailua: SS 926/89

GOIERRITARRA aldizkaria irekia da eta ez dator nahitaez idazleen iritziekin bat

Gaurko edo biharko kolaboratzaileei:

Gure Telefonoa: 88 96 12

Irakurri eta zabaltzazu Goierritarra!



«Goierritarrak»

Kultur Elkartea

Gazte-Literatura

ZABALDU OSTERTZA!

Zabaldur ostertza!

ametsak darama bizitza.

Ez dut ezer uztekorik,

bidebaliza huts bat eskuan,

bihotz ase ezin bat bularrean.

Hondartzaren hare hezeetan oinutsik,

geure malkoz eginiko lokatzak

ezaba neure urratsak.

Txaluparen atzekaldean larrutsik,

itsasoa eta biok geroz eta barnerago,

zerua dugu hitz hauen lekuko.

Zabaldur ostertza!

hegaz doa ametsa.

Izarrei begira liluraturik,

zai ditut biharko orduak,

hori diote izar haren keinuak.

Ezinezkoa litzateke atsedetik,

hitzemandakoa izan bitartean

bi eskuen artean.

Ez dago ezer borrokatu bagerik,

zaila da eguzkira iristea

ausartzen ez bagara joatea.

Zabaldur ostertza!

ametsak ireki ditu begiak.

Hegoaldera,

ama bat negarrez,

haur bat gosez.

Ifarraldera,

herri bat beldurrez,

iskilu zapaltzaileen euritan oinez.

Begira lurrera,

gizonak elkarri irainduz,

batzuek besteak zapalduz.

Zabaldur ostertza!

ametsak ikusi du bizitza.

Inon ez ezkutatzerik,

inora ez ihes egierik,

ez dago itzulerarik,

ez dugu egin bidaia hasi besterik.

Zergatik daude gizon hoiek garraisika?

Zergatik ez dute jaten haur hoiek?

Zergatik ez ditut ikusten baso eta ibaiak?

Zer egin duzue ama?

Ez nuke entzun nahi

horrelako galderarik,

ez nuke nahi eta banoa ihesi konpondu nahirik.

Zabaldur ostertza!

ametsak baztertu du bizitza.

Luzatu besoa,

ixildu garraisia,

askatu katea,

bete sabela,

uxa iskiluen euria,

eman eskua elkarri.

Errudon naiz, barkamenik gabe,

itsasoak eraman nazala

eta epaitu behar bezala.

Ainhoa Galparsoro



EUSKARA BATZORDEA

1991

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
APIRILA	MAIATZA	EKAINA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29
URRIA	AZAROA	ABENDUA
A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	A A A O O L I 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29



ORDIZIAKO UDALA



BEASAINGO UDALA

Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Anbulategia (Ordizia)	88 11 65
Anbulategia (Beasain)	88 07 59
Eskualdeko Ospitalea	72 38 13
Ertzaintza	00 00 00
Ordizia (udaltzaingoa)	88 40 05
Beasain	88 09 61
Suhiltzaileak	88 13 62
Udaltzaia	00 00 00
Bulego Nagusiak	88 58 50
Ongizate Saila	88 82 50
Obralen Bulegoa	88 24 65
Kontuhartzailetza	88 76 00
Kultur Etxea	88 12 90
Iberduero	88 46 50
Herri Antzokia	88 07 44
Majori Polikirodegia	88 93 33
Renfe	28 30 39

Udaltzaia	88 59 00 / 04
Bulego Teknikoa	88 38 80
Udaltzaia / Suhiltzaileak	88 13 55
Ertzaintza	88 73 50 / 88 09 61
Oasun Etxea	
(Anbulatorioa)	88 07 59 / 88 86 50
Gurutze Gorria	88 28 35 / 88 79 99
Adimen Oasun	
Zentrua	88 67 62 / 88 67 66
Arangotti Agureen Egoitza	88 01 57
Erretiratu Etxea	88 48 00
Antzizar Polikirodegia	88 79 00
Udal Biblioteka	88 90 95
Udal Euskaltegia	88 90 94
BOK Musika-Kontserbatorioa	88 90 95
Taxiak	88 03 67
Renfeko Geltokia	88 08 53
Bake Epaletgia	88 16 81

LANA

— Emakume bat lanerako prest dago. 886432 tfna.

— Portal, bulego, eta horrelako lekuen garbiketarako neska eskaintzen da. Marisaz galdetu. 722398-888917.

— 20 urteko neska eskaintzen da lanerako, haurrak zaintzen edo etxea garbitzen. 161398. Ordizia.

— Etxerako edo haurrak zaintzeko neska eskaintzen da. Esperintziduna. 886914.

— Orduka lan egiteko neska eskaintzen da edozein garbiketa lanerako. 886617.

— Administratibo laguntzaile gixa eskaintzen da, mekanografia eta euskara ere badakiena. 885034.

— 27 urteko emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Portalen garbiketarako, bulego, e.a. 4,30etatik 8etara deitu arratsean. 887201.

— Arotz lanak egiten dira prezio onean. 889898.

— Sukaldari, zerbitzari etabarretarako lagun bat prest, lan egiteko eta kobratzeko gogoarekin. 888888 tfna.

SALMENTAK

— Salgai dago Ducati Road markako moto bat. Arratseko 7etatik aurrera deitu. 884524. Ordizia.

— Akordeoi bat salgai, ia berria. 884009.

— Kotxea salgai. 205 GTI, SS-AJ. Hiru hilabete ditu. Garajejan egona. Salneurri interesgarria. 889856.

— Butanozko berogailua salgai, hilabete bat du. 889990.

— Ordenagailua salgai, Sanyo MSX 64K. Ia berria. Kassett eta video-juego zintak oparitzen dira. 55.000 pta. 885542.

— «Mobylette» bat salgai, berria bezala. Deitu. 801444.

— Kotxe remolke bat salgai, 20G 800. Sangi markakoa. 884836. Jesus.

ETXEBIZITZAK

— Idiazabalen etxebizitza salgai. 801710.

— Logela nai dut errentan. 884652.

— Ordizian etxebizitza salgai. Berri gehiago jakiteko deitu zenbaki honetara. 889382.

— Lazkaon etxebizitza salgai. Kanpoalde zabala. 160219-882582.

— Araman etxebizitza salgai. 883530.

AGURRAK:

«Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako; ez eta dakit hitzegiten ez dutelako, baizik eta ez dakitenek eta ez dakigunok mintza-praktika egiten ez dugulako». Gu Geuk.

«Villafrancatar Jaun Prestu»

Villafrancatar Jaun prestu/ erri-eraman-zalleac./ ez izan zuen goy-zaleac./ malla oetan arra aztu/ gutiziak Ez beldurtu!/ Laga amodio zuenquoiay./ gustien onari jarrai./ artaco zaute abeac./ eguiñak gure jabeac./ egon sendo, zuzen ta ernay./ (Iztuetak 1832.ean jarriak) Sufragista batek gogorarazten dizuete.

EKITALDIK

LEGORRETA KO MARTXO -APIRILEKO FILME EMANALDI EGUNAK

Martxoak: 24/25, «Ay, Carmela». Apirilak: 1/2, «Batman»; 7/8, «El club de los poetas muertos»; 14/15, «Fantasmas atacan jefe»; 21/22, «Pandilla de lunaticos».

ORDIZIAKO MENDIZALEEN IRTEERAK.

Martxoak: 25, Urkilaga-Lareo-Larraitza (G). Apirilak: 1, Artzanburu-Andraitza (Aitzkorri) (G). 8, Amezketa-Minas (Mehategiak) (G). 22, Martxa erregulartua haurrentzat (G).

BEASAIN-ORDIZIAKO GOARDIAKO FARMAZIAK

MARTXOA: 16,17:Jauregi; 18: Arriola; 19: Urbizu; 20: Atorrasagasti; 21: Azpilikueta; 22: Jauregi; 23,24: Azpilikueta; 25: Laurnaga; 26: Cuesta; 27: Arriola; 28: Urbizu; 29:Atorrasagasti; 30,31: Laurnaga.

APIRILA: 1: Azpilikueta; 2: Jauregi; 3: Laurnaga; 4: Cuesta; 5: Arriola; 6,7: Cuesta; 8: Urbizu; 9: Atorrasagasti; 10: Azpilikueta; 11: Jauregi; 12: Laurnaga; 13,14: Arriola; 15: Cuesta; 16: Arriola; 17: Urbizu; 18: Atorrasagasti.

BEASAINGO IGANDETA KO DANTZALDIK

Martxoak 24: Egan. Apirilak 7: Inguma; 21: Minxoriak.

Goierritarrari

Kaixo goierritarrak!

Hona hemen nire eskaera. Gustora jasoko nuke etxean zuek hain gozoki egiten duzuen aldizkari hori. Nahiago nuke hemen inguruan antzekorik bagenu, falta nabaria bait dago lurralde euskaldun castellanizatu eta abertzale hipokrizatu honetan. Ondo izan eta segi zuen seta horrekin, irakurleen gozamenerako.

Xabier Lasa (Andoain)

Lagun horiek, Urteberrion!

Eskerrikasko GOIERRITARRAren aleengatik. Eta zorionak maketazioagatik, euskara erabilkeragatik eta gaitegiagatik. Jarrai horrela, aurrerantzean ere. Lekuan lekuko pentsamendu lana, lan nagusia baita arrazoi askorengatik, iadanik aditzera eman dizuedalarik maiz askotan.

Joxemartin Apalategi (Bilbo)

Kaixo Goierritarra!

Azkenaldi honetan zuen aldizkariaren berri izan dugu. Jakina, edonon aurki daiteke goierritar eoskor bat, eta horrelako inizatiba interesgarria izateaz gain, iruditzen zaigu errebistaren mamia ere ez dela atzera gelditzen, inguru hoiaren berri jakitea (euskaraz noski) atsegina dela alegia.

Bestalde, euskalategi batetan ahalik eta euskal publikazio gehienak biltzeari beharrezkoa erizten diogu, irakasle nahiz ikasleen kultur zabalkunderako tresna eta baliabide gisa.

Ikusten duzue, badugu irrikirik eta behar premiazkorik zuen aldizkaria jasotzeko, eta goierritarren jakintza Donostiako aide kutsatuan hedatzeko eragozpenik ez baduzue behintza, eskertuko genizueke zuen kontutxoak ezagutzea eta zuen kontura parre pixkat egitea, noski!

Irrintzi AEK Euskalategia (Gros)

Gaztetxo-Elkartea eta euskara

Dagoeneko bateratu den GK gipuzkoarrak zerbitzeko izana dugun kutxa honetan Gaztetxo-Elkarte bat bada, haurren aurrezki-sena pizteko eta bide batez propaganda egiteko.

Nik dakidala kutxa honetako Kontseilu Nagusia Gipuzkoako Batzarre Nagusietako osagai politikoen arabera-edo osatuta dago eta hori oso demokratikoa da noski. Horrek, bere hizkuntza eskaintza euskaldunok ongi zerbitutuak izateko adinakoa izan beharko lukeela adierazi nahi du. Gauzak ordea, bestelakoak dira.

Gaztetxo-Elkarteko dei eta argitarapenak euskaraz beti huts eginda agertzen dira, baina espainieraz behin ere eta ezertan ere ez. Behin batean nire seme-alabei sari bat suertatu zitzaizela eta, ia dena erdaraz zegoelako kexua bidali nion zuzendari jaunari eta honek gutun leun eta epel bat bidali zidan erantzuntzat.

Abenduaren batean, berriz ere beste sari jasotzen bat zela eta, oraingo honetan sariak eskertu beharrean, hauek zapuztu eta gaitzesteko sentimenduak sorrerazi dizkit: -Sari txartela espainiera hutsean. -Aurkezpena espainieraz, tartean lotsa emateko hitz bakan eta ñaño batzuz laguntuta. Pellokirtenkeria hutsa. -Izendapenak eta deiak espainiera hutsean. -Handienen irabazleari ezinbestean egindako elkarriketa, bikaina gaztetxoaren aldetik eta mesprezagarria galdetzen ere asmatzen ez zuen Kutxako ezjakinaren aldetik.

Azken filma, zeresanik ez, beti bezalaxe erdaraz. Negargarria benetan. Kutxa ez da A eradura ere iristen. Nola ausar liteke? Non daude Kutxako eta Kontseiluko zuzendariak? Non ordezkari politikoak? Zer gertatzen da GK'n euskararekin?

Andoni Sarriegi

Etxebizitzak: nahi ta ezin

Azkenaldian begi bistakoa zaigu gizartearen sektore nagusi batentzat behin behineko beharrak direnak, nola beste gutxiengo batentzat diru iturri ezin hobe bilakatzen diren; hala ere, badirudi joan zaigun urte zaharrak, luzaz pilpilean daramatzen arazo horien borrokaren ildo zuzena eskaintzeko bidean ipini gaituela urte berri honetan.

Bai, oinarritzko arazo bati buruz ari gara hitz egiten: *gizakion emantzipazio pertsonalaren prozesua geldierazten duen arazo* bati buruz, kasu askotan gizarite honetan marginaziora eramaten gaituen arazoa eta beste herrialde batzuetan sozial konfliktuak sortarazi dituen (gogora ditzagun squoter, kraker mugimenduak Alemanian, Holandan eta Britainia Handian). Egia da etxebizitzaren banaketa ankerrak guztiontzat daukan eraginaren handitasuna ezinezkoa zaigula ukatzea, askotan, jasan beharreko bizi baldintzak zinez penagarriak suertatuz, baina arazo hau arte gehiago larriagotzen da herriko sektore konkretu batetan, bere berezitasunak direla eta, gaztearenean bederen. Beren diru iturriak oso urriak izanik eta lanbide ez egonkorrez baliaturik ezinezkoa suertatzen zaizalarik behar bezalako etxebizitza egoki horren bidez norbera izatearen helburua. (...)

Jarrai



GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... TLF.....

Aldizkaria ohiz jasotzen duzun lekuetan utzi ala Ordiziako 124 Posta kutxara bidali

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER



LANCIA ETXE - AZPI

- Goierriko banatzaile ofiziala
- Instalakuntza modernoak
- Berebil berriak eta okasiokoak



Tfnoak: 88 10 61 - 88 29 46

20216 ORMAIZTEGI



MUJIK
JATETXEA

Liernia
Tfno 80 16 99

20214 MUTILOA

T	▲	A	☐ OFIZINARAKO MATERIALA ☐ ESKOLARAKO MATERIALA ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK
M	● PA	A	
Y	■ PEL	O	

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80 20240 ORDIZIA

TROSKAETA
TABERNA

* BAZKARI ETA AFARIAK. 881037 ATAUN



LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN

MAIKA

jostundegia eta oihalak

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA
ORDIZIA

BURDINDEGIA
GVREA

HORNITEGI
LANABES ETA
HORNIGAIK
SUKALDE TRESNERIA

Madalena, 2 — Tlf. 88 19 95. LAZKAO

..Garai batean edozer huskeria zen notizia. Edozerk harritzen gintuen. Gaur egun, haundiagoak ikusi eta entzun eta inor ez da aztoratzen. Autobia, adibidez. Goierritik pasatuko dena: kristo eginda gelditzen ari da Ikaztegietatik hasita Idiazabal arterainoko kamino bazterra, baina beharra ere bazegoen tarteko udalerriak lasai uzteko. Laister bukatuko dira obra faraoniko hauetxek. Normal-normal hartzen ditugu halakoak. Askozez informatuago gaudenaren seinale. Bertan dugu "aldea globala"!

..Manu Aramendi, ETA (p-m)ko buruzagi-ohi bergizarteratua, CAF-eko karnizero eta tratante "ijito"ak, Itsasondotik pasatuko den autobiaaren ertzean egin beharreko gasolindegian parte bat izango omen du, 100 milioikoa (terrenoak-eta) aportatuz, CAMPSArekin erdibana. Gasolina usaina, diru usaina!

..Goierriko autobiarekin bueltaka, etxe eta baserri zenbait birrintzeko ordua ere iritsi zen duela urtebete. Itsasondoko "Azubi" baserria lurrarekin berdindu dute. Bere ganbaran zeuden liburuak eta paperak (anai arteko gerraren berri ugari barne) erre zituzten langileek, inork agindu gabe, baina inork galerazi ez zituela. Kolokan geratzen da obraren enkargatu-edo ordiziarraren papera.

..Tere Irastortza, gure kontseilari eta kolaboratzaile fin eta preziatuak, isilikako lanean dihardu. Nahiz eta literatur munduaren sarao agerikoan nahiago duen ez azaldu aspalditxo honetan (eta ez modestia faltsuagatik, portzierto), sortu, sortzen du. Hala poesia, nola prosa, kanpoko autoreen itzulpengintzan gogor ari delarik. Bestalde, bere aldeko gauza txikitxo eta adierazgarri bat ez dakienarentzat: urteetan txistu-klaseak ere ematen aritua da Zaldibian eta beste.

..GOIERRITARRA aldizkariaren intrahistoria egiteko ordua iristen denean, izango dugu zer kontatu: makina bat esne- txar, zankadila, burokrazia, arrazoi-txar, e.a. Beude. Perlatxo bat arrerapen gisa: aldizkaria sortzekotan genbiltzanean, Lazkaoko Zorion Mujika jeltxak deiren bat luzatu bide zion bati baino gehiagori, esanez, "aldizkari anti-istituzional" (sic) bat ateratzekotan ginela eta ea kontrako bat sortzerik ba ote zegoen tanteatuz zebilela bera. Hobe genuke halako miseriari gabe aurrera egin GOIERRITARRA BATERAKOI batekin.

..Senpere zentru komertziala iazko abenduaren 1ean ireki zen Beasainen. Bi pisu ditu, lehenengoan komertzioa, «Super BM» supermerkatua, non marka orijinalak saltzen diren, dendak eta tabernak. Bulego eta despatxuak bigarrenengoan. Betetzen doaz lokalak piskanaka. Beste aukera bat kontsumitzaileentzat.

..Ordiziako Alkatea bisitan izan genuen aldizkariaren egoitzan eguberri aurretik. Bere garaian, kostata baina, lokala utzi zitzaigun Correos azpian. Eskertzekoa da eta eskertu izan dugu, baina hanka-motz geratzen da eskaintza. Era desegokian, musikoz eta zaratez inguraturik daramagu urtebete baino gehiago, leku-aldeketa eskatu eta eman etzaigula. Aldizkariaren hurrengo kurtsoko iraupena eta errekonbertsioa gauzatuko duen borondate politikoa (Beasain eta Ordiziako Udalek eta Goierriko Herrien Ekintza fundazioak agindua) benetakoa izango al da!

..Zerbait egin eta aportatu nahi duenak beharko aldegin Goierritik. Aspalditxo joan zen Fernando (San Jose) Unsain kantaria Donostiara. IZ musika-etxeko nagusi, ETBrako produkzioak egiten ari eta ari da. Iazko "Funtzioa"ren arrakastaren ondoren aurtengo "Bi eta bat"-en ez gutxigorakoa. Bere biziko karrera.

..Semaforoak han, semaforoak hemen, semaforoak kale bazter guztietan. Ia ez da semafororik gabekorik. Hiritar itxurak egi-teagatik ote, herritarrok?

..Zaldibiarako kultur dinamizatzaileak kanpotik ekartzeko ohi-turak aurrera. Ez dakigu zer esamin eta zer kristo, kanpokoek (ez dugu hauen kontra ezer, listoagoak badira hobe beraientzat) gehiago ote dakite herriko berri, dinamizatu beharrekoaz?

A ze flaxa Gaintzako kanposantuan: Gaur ni, biar zu!



Gema M. Arrugaeta

Ordiziako Gazteteak 4 urte

(Mediku Etxea) berriztu egin genuen eta haseran nahiko kritika izan genuen. "Proyecto Hombre" delakoak adibidez, artikulu baten bidez, hau "gazteak droga-tu eta marginatu daitezen Udaletxeak emaniko kobazulo bat" zela esan zuen. Baina orain, pixkanaka gauzak aldatzen joan dira eta jadanik jendeak ez du hain gaizki ikusten; azken Nafarroa Oinez-erako autobus bat bakarrik jarri genuen eta azkenean bi bete genituen. Gauza guzti hauek, jendeak, hemen inork ez duela kozka egiten ikus deza balio du eta baita oso gauza majoak egiten ditugula erakusteko. (...)

Barrarako eta beste guztietarako txandaka egiten dugu parte hartzen duten talde ezberdinekin. (...) Argi ikusten duguna zera da, honela antolatu garenetik, Gaztetea aurreruntz dihoala eta jendeak gehiago hartzen duela parte. (...) Etorkizuna nahiko baikorra dela uste dugu, batez ere Gazteteari beste giro bat ematen dion gazte-jende berria sartu delako, eta hau batez ere asanbladetan eta egiten den lanean igartzen da.

Porrot, 39 zenb.


Arlote

Ezeren aurretik esan, eguneko emisioak hiru ordutakoak direla, 9etatik 12etara eta astelehenetik ostiralera. Irratsaioen artean informatibo bat dago 10etatik 10,30etara eta beste 12 programa, gehienak gurekin lanean ari diren kolektiboek eginak, hala nola, Gestorak, Jarrai, Askapena, Objetoareak, EHE, Emakumeak, e.a., bakoitza dagokiona jorratzen.

Lehenago ez zen programazioa lantzen eta norberak nahi zuena egiten zuen; gero bai, dena birplanteatu genuen eta izan behar zuenaren antzekoa egiten hasi ginen. (...) Jendeen esanetan badakigu garai batean oharkabea pasa zitekeen gauza zela gurea baina ia ez da horrela, denek dakite hau ez dela abentura pasakor bat, sendotutako proiektu bat baizik.

Irrati librea gure eskura dago eta aurrera eraman nahiz gero ez inork eta ez ezerk ezin du galerazi.

Porrot, 38 zenb.



Arlote Irratia

Industria Idiazabal

Iazko urtean, eta uda bukaera aldera amaitu dira poligono honetan egin diren lehen faseko urbanismo lanak.

Honela 10.000 m² industri terreno erabilgarriaz hornitu da Idiazabalgo herria. Laister izango da bertan plastiko lanetan jardungo den enpresa berri bat. Honek 1.140 m² beteko ditu eta 12 edo 15 langileei emango die lana.

Bestalde, urbanizazio gastuei aurre egiteko, orain arteko korporazio honek eraman behar izan duen zorpea, une batetik bestera ordaindua geldituko da. Gipuzkoako Diputazioak bertan terrenoak erosteko asmoa bait du. Honek, zalantzarik gabe, izango du bere eragina enpresa berriak poligo honetara erakartzeko.

Festetako Buletinetik

Kotxearen izurritea

Masifikazioa, estresa, soinua, kutsadura... kotxea hiria eta ingurunea jaten ari da, hiriak ezgizakia bilakatuz. Hirien hazkunde mugagabearekin periferian bizi diren giza-taldeak izan dira kaltetue-nak berriro, eta hauen artean agureak, haurrak eta gutxiengotuak bizi-kalitatearen degradazioa gehien sufritzen dutenak. Kotxeak guztiaren gainetik egon behar duenez, hiriak deuseztatze-ko erabakia hartu dute, kotxe kopuru geroz eta itzelagoaren mesedetan: Kaleak ez dira gomazkoak eta eraiki ziren garaian oi-


nezkoentzat pentsatuta egin ziren batipat. Hiriguneetan sortzen den konpetibida-deak gizarte harremanak pozointzen ditu: estresa, ultzerak eta bihotzeko gaisotasunak areagotzen dira. Atmosferaren kutsaduraren parte haundi bat garraio mota honi zor zaio. Hontaz aparte, soinuaren arazoa dugu. Gure bizimodua ere sedentarioagoa bihurtzen da, grasak eta dekadentzia fisikoa areagotuz. Gainera, kotxeak badiu bestelako ondorio suntsitzaileak: joan den urtean 250.000 lagun hil zen munduan kotxe-istripuetan, eta jadanik, estadistikak eginaz kalkulatzeko dituzte oporraldietan hilik suertatuko direnak, gure zibilizazio desaroilatuaren ondorio "natural" bat bailitzan.

Kotxeak xahutzen du herrialde garatuetan energia guztiaren %20a. Zenbaki honek ibilgailuak mugitzean gastatzen duen errekin hartzen du kontutan soilik. Fabrikazioan, errepide eta autopistetan, petrolioaren errefinatzeko eta gainerako guztia kontutan harturik, energia guztiaren %40-50a suposatzen du. Kotxea, nolahi ere, despilfarro kapitalistaren sinboloa da. Hiritan barna dabilzan kotxeetatik %70ean lagun bat bakarrik doa.

Utz dezagun kotxea. Ibil gaitezen bizikletaz, oinez edo erabil dezagun garraio publikoa, denontzat hobe bait da. Atobia bezalako azpiegiturek kontsumo gizar-tearen zutabe nagusi hau indartzen dute. Hobe biziko ginatke, ordea, kotxea hainbeste erabiltzeari utzi eta burua bizimodu natural eta sinpleago bati begira antolatuko bagenu.

Autobiaren Aurkako Taldeak

Zer iritzi duzu leku publikoetan erretzeari buruz?




Mikel Gaztañaga, 22 urte, ordiziarra, ikasle. Erretzailea

Erretzea ondo baino hobeto dago, norbera bere eskubidean bait dago horretarako. Nahi ez duenak ez dadila sartu hau bezalako (taberna batean ari gara inkesta egiten) leku publikoetan. Eta bestela zonak jarri ditzatela, erretzaile eta ez erretzaileentzat, trenetako bagoietan bezala.

Gurutze Arrondo, 23 urte, zegamarra, tabernari Zerainen. Erretzailea.

Segun eta non, zer leku publikoetan. Ondo iruditzen zait erre ahal izatea, ni ere erretzailea naiz, beraz,... tabernetan eta halakoetan esan nahi dut. Bestelakoetan, hospitaletan- eta, ez. Gaineraz, bestelakoetan beti egon izandu da debekatua. Osasun gabetuak ez dituzu gehiago kalte-tuko, ezta?



Joxe Julian Elgoro, 28 urte, ordiziarra, peoia. Erretzailea.


Gaizki ikusten dut, baina nerone erretzaile porrokatua naiz. Ez dakit zergatik baino erre egiten dut hemezazpi urtez gero. Saiatzen naiz, utzi nahi nuke baina

beste droga bat da zigarroa eta, beno, ez dago egun batetik bestera uzterik. Leku publikoetan galeraziko balute kalera atereaz errespetatuko nuke agindua, umeengatik batipat. Tabernetan debekatuz gero? Ez dut uste hori gertatu litekeenik.



Mikel Leunda Senperena, 22 urte, ordiziarra, ikasle eta EHEkoa. Ez-erretzailea.

Nire iritziz arazoa ez da leku publikoetan erretze ala ez erretzearena. Oinarria gizabanakoa da, eta nahiz areto publikoa izan lasai asko ekin diezaioke edonork erretzeari ingurukoak kaltetuak sentitzen ez badira. Ez dut uste neurri berezien beharra dagoenik.



Jabi "Txuri" Blanco, 23 urte, beasaindarra, langilea. Ezerretzailea.

Maila pertsonalean esan dezakedanak ez luke baliorik, izan ere ez bainaiz erretzailea. Ohizko erretzaileek etengabe kondizionatzen gaituzte gu eta hori ez da gertatzen alderantziz. Ideala zera izango litzateke, erretzaileek publikoan ez erretzeko planteamendu pertsonala hartu eta aurrera eramatea.



Joxe Munduate, 18 urte, ikasle eta bertsolaria, ataundarra.

Nolatan ito gintezke tabakoaren ketan bertsoz agertu nahi nuke nik zer pentsatzen detan maiz batzuek pozik hartu beraien ezpainetan norberaren onik ez da bestearen kaltetan arnasa garbia behar dugunez biriketetan ke zikinik ez dut gura leku publikoetan

Erretzailea mesedez egin zazu alegin bizioaren eskutik al baduzu aldegin egunsentiaren pare izan zaitez atsegin behingoz bederen txondarra piztu gabe ekidin arnasten dugun haizea garbia izan dedin naturaren garbikuntzan ezin duzu hutsegin

Inor ez al da egongo kearen inbidian goxotasuna behar du txori batek kabian haize freskoa nahi dugu kale eta mendian norbait tabakorik gabe geratutzen darian ez pentsatu sartu denik hain arazo larrian sudurra jarri dezala CAF-eko tximinian

Ataungo herriaren tripak agerian

Hamar atal hauen azterketa egin ondoren eta Ataungo egoeraren ikuspegi orokor bat dugularik, oraindik gauza asko egin gabe gelditzen direla garbi dago. Zenbait kasutan Udaletxeak, erakundeek eta kultur elkarteek iniziatiba hartu beharko badute ere, beste gauza asko biztanlegoaren esku egongo da.

Honetaz konturatzeko euskeraren gaia ikusi besterik ez daukagu. Maila honetan, gutariko bakoitzak du ama hizkuntza gordetzeko eta gure ingurunera zabaltzeko erantzunkizuna.

Herritik kanpora, lantokietan gutxi hitzegiten bada, eta lagun artean piskanaka erderaz hitzegiteko ohitura sartzen ari bada, beste zenbait herritan gertatu den bezala, azkenik, euskera, familia giroan bakarrik erabiltzen den hizkuntza besterik ez da izango.

Kulturari dagokionez, eta herritarren iritziz orain arte egindako lanak positiboak izan dira. Beraz, elkarte hauek aurrera jarrai dezaten, behar duten laguntza motak ematen jarraitu beharko lukete horretaz arduratzaren direnak.

Lan ugari egin daiteke, zenbait kultur ekintzatan parte hartzeko ikusi den disposizioa kontutan hartuta: antzerki, dantza eta zinema munduan, batez ere.

Bestalde hainbat kultur ekintza antolatzeke garaian, ataundarren proposamenak kontutan edukitzea beharrezkoa da, eta era berean, biztanlegoaren gusto eta zaletasunak bertso, dantza, abeslari eta abarrei dagokionez.

Kultur ekintzetarako beharrezkoak diren lekuei buruz (zine saloia, liburutegia,...) jendeak adierazi duen ardura, ezin aipatu gabe utzi. Jendearen irakurketa motibatzeke, eta maila batean, kultur aberastasuna eskuratzeko ez litzateke txarra izango, liburutegia bultzatzea. Eta zer esanik ez zine saloiari buruz jendeak pelikulak ikusteko agertu duen interesa ikusi ondoren.

Ataundarrek, herriko aldizkariaren lana ez dela alperrikakoa diote. Orokorrean, iritzi onak jasotzen dituzte, noski, kritikak ere badituzte, eta hauek, hobetzeko garaian kontutan hartzekak izan daitezke.

Ataunen gehiengo batek mendia eta txirrinda praktikatzan dituztela esatea, betiko arazoaz hitzegitea dakar: instalapen falta. Ataundarrek, kirolak ez praktikatzeko arrazoi bezala, denbora eta gogo falta aipatu arren, badaude non eginik ez dagoela esaten dutenak ere.

Badirudi, askok instalapenik behar ez den kirola praktikatzera jo behar izan duela, gaztetxo askok ez bezala, kanpora joatea nahi izan ez duelako.

Orokorrean instalapen falta badago, emakumeen kirol motetara oraindik gutxiago egokitzen dira.

Dudarik gabe, irtenbide bat eman beharra dagoen arazo baten aurrean gaude eta Udaletxeak maila honetan zeresan eta zeregin handia du.

Erantzuteko garaian, jendeak erreparatu gehien politikaz gaian agertu du; batez ere, zenbait arazo politikori buruz iritzi pertsonal bat eskatzen. Ez erantzute horrek emaitzetan bere eragina eduki du.

Gai honetan garbiena, alderdi abertzaleen nagusitasuna da, hortik kanpoko alderdiek ez dute inongo errepresentaziorik gure herrian. Era berean, 18-tik 55 bitartean herritarrek ezker alderdiak hautatzeko joera handiagoa azaltzen dute, eskubikoei diferentzi nabarmena ateraz. Kontutan izan, zentsoko 55 urtetik gorakoak inkestan sartu gabe daudela.

Interesgarria gertatzen da, alderdi politiko ezberdinen egoera gure herrian zertxobait aipatzea; batez ere, etorkizunari begira (kontutan izan, duela urte batzuetako datuekin ari garela). Horrela ikus daiteke, HB dela alderdi indartsuena eta bere hautaleak gehienbat 36-45 bitartekoak izan arren, gazteen artean ere badituela beraien jarraitzaileak. Militantzi maila altuena ere alderdi honek dauka.

Bigarren alderdi bezala, EE agertzen zaigu, gazteen artean 26-tik 35 bitartean duelarik hautatzaile gehien; hala ere, bere militantzi kopurua izugarri jaisten da.

EA izango da, 18-tik 55 bitartekoetan hirugarren alderdia, eta botu gutxiago eduki arren militantzi maila dezentea du. Honek adierazten du, EA-k, inkestan isladatzen ez den arren (lehen aipaturiko arrazoiagatik), baduela herrian indar bat.

Eta azkenik PNV dago. Gure herrian badirudi EA PNV-tik banandu zeneko ondorioak jasaten ari dela.

Baina politikaren arloan jarraituz eta Ataunen zentratuz, Udaletxeak, egin duen gestioari buruz kultur, ekologi, frontoi eta soldaduska gaietan, nahiko kritika gogorak bildu ditu. Dudarik gabe, kontutan hartzekoak dira lau atal hauetan herritarrek proposatzen dituzten ekintza puntualak.

Bestalde, ez dakitela aitortzen dutenen arrazoiak edo kausa desinteresa edo informazio falta izan daiteke. Ez litzateke batere desegokia, pleno eta erabakiei buruzko informazio zehatza herritarren eskuetara iristeko bideak jartzea.

Gogorak izan dira baita ere, Ataun mailan osatu zen PNV, EA eta EE-ren arteko koalizioari buruz egindako kritikak. Alde batetik, PNV eta EA-ko botuemaile batek baino gehiagok, nahiago izan du iritzirik eman gabe geratu, eta bestetik, EE-ren jarraitzaileengandik iritzi zorrotzak jaso dira. Egia esan, hiru alderdi hauek ez zaie gaizki iruditu koalizioaren osaketa, eta kritika txarrak jaso baditu, ez da izan koalizioa osatzeagatik, honen funtzionamendu eskasa eta iniziatiba faltagatik baizik. HB-koak dira ordea, bi gauzagatik keizaten direnak.

Politika alde batera utziz, aipa ditzagun orain ekologi atalean atera daitezkeen ondorioak. Honela, sensibilitate ekologiko mailan egin daitezkeen kanpainak

Nondik

25 zkia.

1.990.ºº ABENDUA



eta proposaturiko ekintza konkretuak gutxi ez direla kontutan izanik, oraindik zeregina badagoela ikus daiteke; erreka garbitu, komun publikoak eraiki, zakarrontziak ipini, Aralarko higaduraren arazoaz kezkatzen jarraitu e.a

Pistak egiteko garaian edo herri lurretan zuhaitz mota bat edo bestea aldatzeko garaian ere, jendearen iritziak kontutan izan beharko dira.

Soldaduska eta ejerzitoaren aurkako joera garbia ikus daiteke gure herrian, eta ez bakarrik soldaduskara joateko adinean dauden artean, orokorrean baizik, ardura gehien adin honetakoak agertu arren.

Jendearen iritziak ikusiz gero, planteatzekoa litzateke gure Udaletxeak erakunde militarrekin kolaboratu beharko lukeen edo ez.

Erlio aldetik sinismenak Ataunen, oraindik dirauela ikus dezakegu. Helduengandik gazteegana jaitiera dezente bat eman den arren, berriz, badirudi errekuiperatze momentu batean dagoela. Hala ere, Ataungo Eliza osatzen duten gehienak (batez ere sinisdun praktikanteak), Eliza ofizialak esaten duenarekin ados ez daudela adieraztea ulergaitza gertatzen da, antisorgailu, aborto eta intseminazio artifizial gaitan.

Agian, Elizak, ofizialak edo ez ofizialak, arazo honi nolabaiteko konponbidea eman beharko lioke.

Feminismo atalaren datuetatik atera dezakegun ondorio bakarra hauxe izan daiteke:

Ataungo biztanlegoaren gehiengoa ez dagoela feminismoaren ez alde eta ez kontra. Izen hori daramaten taldeekin ez bai dago ados, ez eta beraietan parte hartzeko prest.

Pentsa daiteke herritarren iritziz emakumeen askatasuna ez dela etorriko talde hoiek egiten duten lanetatik bakarrik, edo nahiago dutela beste bide batzuetara jo askatasun horren alde lan egiterakoan.

Bide hori gizon eta emakumeak elkarrekin lan egitea izan daiteke. Azkenik, aztertu gabe geratzen dena zera da; gure bizitzetan nola konkretatu daiteken hori.

Zenbait gai aztertzean, edari alkoholikoak Ataungo biztanlegoaren artean duen presentzia dezentea dela ikusi dugu. Nahiz heldu nahiz gazteetan antzera edaten da. Kontutan izan behar dugu azken hauek edaten dutena, batez ere, garagardoa dela, lagunekin poteatzean eta ez helduen kasuan bezala ardoa jatorduetan. Dударik gabe poteatzea gazteen denborapasa nagusietako bat bihurtu da, beharrik gabe edaten delarik gehienetan. Gehienak alkohola drogatzat jotzen dutela ikusiz eta arazo hau beste herrietakoa ere badela jakinik, hainbat lekuetan edari alkoholikoen aurkako kanpainak aurrera eramaten ari dira. Agian beharrezkoa litzateke Ataunen ere honi buruz zerbait egitea.

Porroa eta droga gogorra, zertxobait sartu direla Ataunen agertu zaigu. Edari alkoholikoekin parekatuz, egoera hain kezagarria ez izan arren maila honetan ere neurri batzuk hartzea ez legoke gaizki, gerora begira gauzak okertu ez daitezen.



BEROGAS

BEROGINTZA
ITURGINTZA

BEROGAR

SUKALDEKO ALTZARIAK
ELEKTROGAILUAK

P. San Francisco, 10. TOLOSA
Tfna: 65 33 07 / 73


HARLORE BITXITEGIA

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2. Tfna: 88 96 17

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

UTOESKOL ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

egin

ORIA - UROLA GARAIA

ORIA-UROLA GARAIA - Koroio kalea 14, 20400 TOLOSA - Tfno. 67 54 11 - 67 54 55

Automobilaren errekanbio elektrikoak

G GOURRE

Ampuero, 1
Teléfs. 88 85 50 - 88 85 54
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Ostatua

ZERAIN

Tf. 80 17 99



PEUGEOT - TALBOT
AGENTZIA OFIZIALA

205 RALLYE



SANTA ANA Garagea, S.A.
PRE-ITV DEBALDEKO ZERBITZUA

Urdaneta, 74-76
Tfnoa: 88 16 89 - 88 08 67

ORDIZIA



Goierriko “pizti” eta “ganadu”ak

Errege-erreginaz jositako historiari ezean, hona hemen zenbait kontu zahar eta jakingarri (inork gauzak aldatzen ez direla sinetsi nahi erazi digunerako pronto)

1.- GOIERRITARRAKO ale batean, inguruotako azken segoraren (segoraren bai, Goierrieran; seroraren, batuaz) berri ematen zitzaigun, baina garai batean askoz ere gehiago izan ziren eta indar haundiagokoak. Ez inondik inora gizonen botereari eleizan aurre egiteko lain, kuantu! Edozein moduz, ez ziren, antza denez, gotzaiak eta herri agintariak nahi bezala portatzen eta 1600ean (400 urte hor-hor) Ordiziako alkateak Legorretako Seroraren kontra “kausa kriminala” ezarri zuen. Orain hobeto konpontzen dira, horregatik, daudenak!

2.- Ari dira artzai batzuk ekologisten aurka, otsoak ardiak jatearen errua berea dela aldarrikatuz, baina XVI. mendean ekologistak ez, sobra ere, eta desagertu ziren Aralarko artzak. Horretarako agindu zorrotzak eman zituzten Aralar eta Eniriko mankomunitateko herriek. Zaldibian 1578ko maiatzean elkartuta, akabatutako artza bakoitzagatik sei dukaten saria agintzen zitzaien ehiztariei, eta otso bakoitzeko bi dukatena. Jendea horretara jarri zen, zituen bide guztiekin, eta ordainketen berri jasotzen da 1579, 1583,



1584, 1586, 1587, 1588, 1596, 1698, 1603 eta 1605ean. Hogeitasei urtetan hermeretzi artza akabatu ziren Aralarren Enirio inguruan. Hala ere, 1735ean aitatzen du Iztuetak azken artzaren harrapaketa, Zaldibitarren azio hura ere!

Askoz beranduago ere (diru premia izango zen bazterretan) izan ziren istiluak ataundar eta zaldibitarren artean, pozoin-duta akabatutako otsoren baten auzian.

Azkonar eta basaurdeak akabatzeke agindurik ere ez zen falta izan erruz ziren garaietan (orain ehun urte ingurutsu).

3.- Artza eta otsorik gabe ez ezean, baserrien galerarekin ganadu galera handia gertatu da Goierriin --lau hankakoena behinik behin--. Hala ere, 1812an kotxea baino erruzago zen ganadua. Hona hemen Goierriko herrietan zegoenaren zerrenda:

HERRIAK	IDI PAREAK	BEHI PAREAK	ZALDI PAREAK
ABALTZISKETA	11	43,5	56
ALTZAGA	9	12	—
AMEZKETA	31	25	45
ARAMA	6	9	—
ATAUN	23	215	147
BEASAIN	134	—	7
ZEGAMA	104,5	30	4
ZERAIN	44	15	2
EZKIOGA	44	67	12
GAINTZA	4	47	8
GABIRIA	65	42	1
IKAZTEGIETA	17	5	—
ITSASO	22	58	3
IDIAZABAL	103	—	2
ITSASONDO	7	61	2
LAZKAO	54	48	7
LEGORRETA	40	28	6
MUTILOA	47	7	2
OLABERRIA	66	—	—
ORMAIZTEGI	35	32	3
SEGURA	76	17	15
ORDIZIA	26	19	19
ZALDIBIA	17	124	—

Orduan ere izango zen albaiteorik franko, baina, gaur egun ere askoz ere animali jende gutxiago dagoen arren errezago da jai egunez albaiteoroa bilatzen medikua baino!

«Euskalerriaren alde»-tik jasoa. Goierritarra

ARTISTA HUTSA DUGU SEGURARRA: MARRAZKIGILE PINTORE, TXISTULARI-MUSIKARI, ETXEGILE...

Joxe Mari Telleria: «Bere barrenean bilatuz gero da konprometitua artista»

Norbaiti eman behar bagenio Goierriko artistaren izena, berari. Elkarrizketarakoan, non enteratzen garan artetsu ez ezik artegile integrala eta mundiala dela. Gustora egoteko moduan dago.

Baina ez da bere marfilezko dorrean ixten denetakoa eta baditu hainbat kezka. Horren lekuko, udalgizona ere izan da bere jaioterrian, Seguran. CAF-en egun osoz lan egitetik, Beasaingo Alkartasunara pasa zen jornada erdian lan eginez, dibujo klaseak emanez eta gainantzekoa grafikagintza eta pinturari eskainiz hamar bat urtez, iaz arte. Plastikak menderatzeaz gain, txistulari eta musika-maisu, bere etxe propioa eraikitzen ari da, ezkondua da eta bi seme ditu, hemezortzi-hogei urtekoak.

Autodidakta izanez hasi eta artista polifazetiko izatera iritsi zaigu Telleria. Bere estudioan bada hainbat liburu, ehun, collage, kartel eta traste. Erreferentziak: euskaldunetan Arteta du mai-teen eta unibertsaletan Cezanne inpresionista.

Goiz busti pintzelak

Betikoa. Nondik datorkion artearekiko zaletasuna? Umetatik.

Lehenengo erakusketa Seguran paratu zuen, 63an edo, hogei urtekin. Paisaiak egitetik, pixkana-pixkana paisaiak sintetizatuz eta sinplifikatuz, abstraktoruntz jo zuen. Bide bat eginez, saltorik gabe. Abstraktotik figuratibora, baita biak nahastu ere.

68.era inguratzen gara. Urte klabeak euskal giroaren berpizkunderako: «Ez dok amairu»,... Hemengo parteko bazter-rrak mogitu ziren. Goierriko piktetik ez-ten oso urruti ibiliko.

Eta beno, kanpotik ikusita baina, bere hamarkada 70.ekoa edo izan da, gure iru-dipenez. Modakoa, alegia. Erakusketak, denetara mor-doa, Bilbo, Arrasate, Gasteiz, Bergara, Iruñea, Lazkao, Madrilén, Barcelona, Vilanova i la Geltru, Manresa, Durango, Ataun, Mallorca, Legazpi, Zaldibia, Ormaiztegi, Wiesbaden, Hendaia, han eta hemen. Baita sariak ere, Bilboko I Euskal Pintura txapelketan puntakoen. EHko hainbat Aurrezki Kutxa, eleiza, taberna eta elkartetan bere lanak zintzilik daude alajai-netan.

Urteetan zehar egin dituen zenbait koadro, «argazkien negatibo» gisa bataiatu dituzte, eta, «ez da horrela: argazkiak, positiboan dira, argia bakarrik pintatuta. Negatiboetan iluna zuri da eta argia beltza. Alderantziz egiten nuen», aklaratzén digu.

Bolada batean erropak bakarrik pintatzen zituen, gizaki inbisibleak jantzita baileudeen. Erropak berak espresio handia du artista goierritarrarentzat. «Pertsona baten erropen tajuera pintatuta, azpian dagoena antzeman daiteke». Estilo honen erakusgarri ditugu Axularren «Gero» liburuko ilustrazio mordoa, Lazkao-ko Gerriko elkarteko laukiak, Ordiziako Oiangun tabernako murla, e.a., e.a.

Natura eta musika koadroetara

Aipatu bi estiloetatik beste estilo batetara jo zuen Joxe Mari 80. hamarkadan-edo. Ekologista hezurretaraino, naturarekin inoiz baino maiteminduago, belarrak, garoak, kainaberak pintatu izan ditu, naturarekiko zaletasuna bere pentsakeraren muinetik jaiotzen bait da.



Hondoan ageri dena ez da begetazio-begetazioa, ia naturala den pintura baizik

«Asko gustatu izan dira jendeartean. Ia gutxi gelditzen zaizkit».

Musika eta pintura mundutan ibili denez, biak uztartzeko gogoia izan du beti: «Badago teoria bat, koloreen gaman dagoen kolore bakoitzari nota bat emanez, eskala musikaleko notak ere, bata bestekin lotura badutela».

Egin duena da, euskal musikako partitura ezagunak hartu eta musikan denbora dena pinturan espazio bihurtu. Marrak kolore batekoak edo bestekoak izan litezke, noten arabera. Kantuen ahotsak bat baino gehiago direnean azpigain pintatzen ditu, marrak nahastuz, gauza harri-garriak atereaz. Batek baino gehiagok, pintura horiek ikusi eta ea musikoa al den pintorea galdetu omen du. Ez daki non ikusiko zuten erlazioa, baina asmatu.

G.- Arkitektura musika jelatua dela diote. Ikusteko etxea egiten ari omen zara...

J.M.T.— Ikustekoa ez dakit, egitekoa behintzat bai. Neke askorekin, Zerain-mendin egiten ari naiz. Bista onekoa, oso alaia, eguzkitsua; beste bati agindu eta egiteko nola ez daukagun, bada, geuk. Neuri asko tiratzen dit autosufizientea izateak. Ahal ditudan denak neuk egiten ditut. Dena ere ez dago egiterik, baina.

Gizonaren lanak

Aintzinakoen gisakoa eta modernoa. Berrogeitaka urte ditu, asentatzen ari denaren seinaleak. Diseinua berak egin eta aparejadoreari eman zion, euskal base-riaren estetika hura modernizaturik. Egurra, harria, igeltseritza, linternaritza, e.a. bere esku.

Beti gustatu izan zaio, aipatu bezala, natura, kanpoan bizitzea, lurra eta baratza lantzea, landareak. Pintatzeko ere etxe berrian beste lasaitasun bat aurkitzea espero du. Orain margolaritza utzi samar dauka, etxea dauka sarturik buruan, bueltaka dabilzki lanak: «*gero, ez duk profesionalak bezala, hasi eta egin. Hau egin behar dugu, nola egin behar dugu?, galdetuz hasten gaituk egiten; lehenengo pausoak oker eman eta azkeneko, bukatzerako ikasten dugu eta nonbait hor!*».

Enkarguzko lanak hartzen ditu ordea, geroz eta gehiago. Liburuen ilustrazioak, grafikoak, posterrak egiten ditu. Bere azken lanak: Kaxiano musikajole itsuaren azken diskaren azala, omendutako bertsolari goierritar biren posterra, Elorri kultur elkarteko hainbat argitalpenen kartelak e.a. Herri mailako lanak nahiz Nazio mailakoak gusto berberarekin egiten ditu Telleriak, herri mailako gauza xehek duten inportantziaren jakitun. Horren beste adierazle bat, hirurogeitamarren bat txistu-ikasle ditu Segurako herrian. «*Hauetatik bakarren bat aterako da!*», botatzen digu.

Arte-mundua, herrigintza

Arte munduagatik galdetu eta, «*Bilbo-ko Arte Ederretako Fakultatetik jende balioso askoa eta ugari irtetzen da, baina gaitza izango dute horiek denak artetik bizitzea. Hortxe hortxe lehendik mundu horretan sarturik daudenak. Gaudenak ere, zenbat hortik bizi? Askok ez. Uste dut laguntasun gehiago beharko lukeela Gobernu aldetik-edo. Ez konkurtso maila horietan baizik eta obren erostea-edo, edozeini ez dut esango baina bai serio ari den bati. Ez dakit formula baina nola-*



Autoerretrotoa

baiteko laguntasuna. Ikusten bait da nor ari den serio eta nor ez», Telleriak dioenez.

**«Pintura-kaja
batekin saritu
zuten gaztetan.
Bere kasa ikasia
dugu Telleria»**

Munduan zehar arte-ingurukoak nahi-koa usteldurik ez ote dauden? «*Hortik ere badago. Jendeak asko aprobeztatu du, izen handikoen obrak, enkanteetan kotizatzen diran obrekin diru asko egin da. Behar lukeen baino gehiago, artista apal edo ezin bizirik ibili denean*». Van Gogh bat adibidez.

G.— Artista izateak ez dizu herrigintza ahaztu arazi. 68.etik aurrerako borro-
kak, honetarako...

J.M.T.— Artista ez da beste edozein lan-
gile baino gehiago. Onbre, bere obra jen-
de gehiagorengana iritsi liteke baina.
Gazteago ginenean askatasun egarria ze-
goen. Hori ez da asetu, ez gara aske. Ba-
tzuk uste zuten Franco hilda gero izango
genuela askatasuna. Hortan sinesten ez
zutenak asmatu.

G.— Bukatzeko, Joxemari, zein da ar-
tistaren papera?

J.M.T.— Artistak bere barrenean bilatu
behar du. Eta bere barnean ingurukoa
baldin badu, hura azalduko du. Hori da
artista konprometituak izatea. Ez etiketa
baten babesean aritzea. Batzu gaztetan
izan dira konprometituak, gerora lasai-
tasuna bilatu eta ahaztuz; beste batzu
sekula ez eta badira beti konprometituak
izan direnak ere.

Mikel Aramendi

MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50



HEGOA
TABERNA

Goierri Kalea, 12 (Atzekaldea)

ORDIZIA

BODEGON
GOIERRI
JATETXEA

Tlf. 88 00 00

Kale Nagusia, 20

BEASAIN

OSTATU TABERNA
Giro Jatorra
IKAZTEGIETA

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

Bilore



Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

HIDALGO
BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA



IRYROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA





N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
OLABERRIA

ATERA BERRIA DU "MALEZIA SORTA" POEMA LIBURUA "SUSA" SAILAN

Jon Arano: "Irakurlearen bizitzan eragin nahi nuke"

Dagoeneko batzuk jakingo duzue, berarekin hitz egiteko zoria izan, norbaitek haren berri eman dizuelako edo bere artikulua irakurtzeagatik, nor den Jon Mikel Arano: GOIERRITARRAren koordinatzaile bera. Kazetaritzan aritzeaz gain ordea, bazuen beste aurpegi ezkutuago bat: poesia idaztea, alegia.



Poeta gazte goierritarra

Eta ezagutzen ez zenutenok, berriz, izango zenuten azkenaldi honetan egunkarietan-eta itsasondotar honen argazkia ikusteko aukera. Baina, egunkariak egunkari eta argazkiak argazki, oso gutxi irakurriko zenuten gazte honen bigarren poema-liburua: «Malezia sorta».

Egileak liburua atzekoz aurrera irakurtzeko gomendatzen badigu ere, ni behala pasa nintzen, Tere Irastortzaren kontrazaleko testu ederretik azalera, eta, Malezia hitz misterioitsuak bultzata, azaletik barrukaldera. Eta ezertan hasi baino lehen, non esaten digun "ijito" honek, bere bigarren gozeta hau ia-ia lehenengo delako, hain txikitandik datorkion zaltetasuna.

Frankismoaren azken urteek, elizak eta irakurketa goiztiarren burni-goriak markatu zuten. Erlijioa aipatzen didala, «Eliz-mutila izandakoa nauk. Eliza askotan zeudek geure herrikoaren antzeko erretabloak. Goian, Jaungoikoaren al-tzoan zintzoak eta behean infernuko betirako sutera boteak gaiztoak, galduak, garraisika. Ikaragarria huen, oso mani-keoa», zela oroitzen da Jon.

Garraisi haiek entzun izaten zituen ez dakigu, baina bazekarren, bere barneko deiei kasu egin eta, ikusten eta ikasten zituenak isladatu nahia. 13-14 urterekin bere lehendabiziko bertsoak etorriko zi-

ren: "Legorretako huelga hori/ bai benetan gaiztoko zori (...)", Ordiziko Jakintza ikastolan atereak.

Ikasketak bukatu ez zituela, bizitzaren eskolan jarraitu zuen, baina jaioterriko "maisu zaharra" rengandik ikasketa interdisziplinarioak jasoaz, herriko liburutegitik atera gabe eta egoera politiko, sozial eta kulturalaz kezkatua beti ere. Erreferentzia andana bat darabil hitzetik hortzera, aldizkari eta liburuen izenburuak, idazle etxeko nahiz arrotzak. Etxekoen artean Eustakio Mendizabal «Txikia»renganako mirespena.

Urte batzu geroxeago (mundu krudel hau), bizitzaren zenbait derrebeskoek bultzata argitaratu zituen poematxo batzu «Zeruko Argia»n. Bere lehen liburua, "Bileterik gabe" (Susa), geroxogokoa da. Kutsu esistentzialista zuten zirriborroetatik, arnas handiagoko poemak borobilzera jo zuen autodidakta honek.

Etarraiogatik esaten duela gauza berririk, edo berri usaina duenik

Baina gauzak aurreratu gabe, esan liteke beti izan duela bizitza gorabeheratsua eta zenbait ofiziorekin batera konpainiatu dituela bere afizioak. Bere obra nahikoa lotua egon da bizikerekin; bohemio eta abenturazale ibilia dugu hemen-dik kanpo, beti ere leku marjinal xamarretan.

Beaje eta ibileretatik erreferentzia asko hartu ditu, zeberak dioen bezala, "idazteko irakurtzea derrigorrezkoa duk, baina ez nahikoa. Idazleak bizi egin behar dik, eta edan, zinetik, komiki, fanzine, kale-bazter, taberna-zoko, argazki, musika-letra,... arte-ederretatik".


Idazle eta bultzatzaile

Han eta hemen ibili ondoren, soldadutza-morrontzak-eta, gura itzuli zen eta Susa, Argia, eta "Egin"eko "A ze astelena"n hasi zen benetan trebatzen. «Akordatzen nauk, larunbat gau osoak laneko gau-pasan egiten genizkian, eta oso gustora». Ikasitakoak aplikatzen ari da geroztik.

Baina erredaktore lan horiek bukatu ziren eta kolaborazioekin nahikoa ezta, Itsasondoko kultur dinamizatzaile legez "Kantillape" sortu zuen, oraindik bizirik dagoen aldizkaria. «Ordurako buruan nian "Goierritarra" sortu behar zela», eta baita sortu ere Aranok, laguntza estimagarri eker.

Bienbitarteko urteotan, poemak pila-tzen joan da Jon eta hiru zatitan banaturik («Malizia», «Familiarteko gorrotoak» eta «Zerbitzariarenak») eman du mali-ziatxo xorta hau.

Bere ustetan, «Nik ondo bereizten dizkiat poesia egiten duen Arano eta GOIERRITARRAn, "Egunkaria"n, kazetaritzan dabilena. Aldizkariak zabala behar du izan, irekia ahots guztiei, hitza emateko ez dutenei. Liburuan nireak, ez da derri-gorrez autobiografikoa, edo nik nahi di-



tuanak doaz. Irakurlearen bizitzan sartu gura nuke bi kasutan». Hori bai, GOIERRITARRAren bizi-iraupenak damaizkio buruhauste latzenak oraingoz.

Besteek esandakoak ez errepikatze-kotan, ahots orijinal baten bila aritu da poesian Jon Mikel, saiatu da berritzaile izaten, eta, arraiogatik, esaten duela gauza berririk, edo berri-usaina duenik euskal literaturan, baina ezertxo ere ez da hitzez hitz hartzekoa bakarrik. Zigarro bat beste baten atzetik piztuz, berak dioen bezala, "lerro artekoak irakurri behar dira liburuan". Irakurlearen esku dago.

Jon Imanol Iturrioz




SUSKRIBITU ZAITEZ!

GAUR EDO BIHARKO
KOLABORATZAILEEI:
GURE TELEFONOA, 889612.

IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRRITARRA

Diosalak eta kunplimentuak Zegaman (I)

Ohiturazko formulak izaten dira: buruz dakizkigu eta mekanikoki erabili ohi ditugu okasioa datorrenean. Batzutan formula ez dakigu eta larri asko pasatzen dugu: zer esaten da, norbait hil denean?



Horregatik formula horiek ez dira formula hutsak: ezagunekin zein ezezagunekin harremanak errazten dituzte. Gainera, bestela ez genuke batere jakingo, sentimendu batzuk nola erakutsi (hiletetan, esaterako).

Herri bakoitzak dauka bere kortesia modua, klase sozial bakoitzak, eta beharbada adin bakoitzak. Alemanek ez daukate italianoak bezalakoa. Orain formula batzuk unibetsaldu egin dira, zinearekin, literaturarekin, eta horiek iruditzen zaizkigu modu finak (nik Zegaman askoz finagoak bildu ditut):

—«Vanden Brock deritzat, eta zuri?».

—«De Potter andrea neri».

—«Atseginez ezagutu», —erantzun zuen Vanden Brock-ek.

«Pozen naiz», «atsegin zait» eta holakoak entzuten dira sarri aurkezpenotan, erdaratik hartuta. Zegaman «urte askotako» erantzuten da:

—Hau nire emaztea (edo: Maria, ez dakit zein).

—Urte askotako.

Ondo hitzegina izan

«Hori kortesa da» edo, ez da esaten. Horren ordeztu:

—Pertsona ondo hitzegina da.

—Pertsona gisatsua, gisakoa, itxurazkoa, egokia.

—Ondo erakutsitakoa (ikasitakoa).

—Prestua, leiala, izateak ere izan dezake kortesiaren sentidu hau. «Modu onetakoa izan», ordea, ez da «tener buenos modales», «tener medios» baizik: dirudun samarra. Alderantziz, tratatu zaka-rreko edo kortesia gabekoak:

—Errapamenik gabekoa. —Gaizki hitzegina. —Inkarnu gaixtokoa. Zegaman dextente dabilen «inkarnu» hori, ez dut uste hiztegieta jasota dagoenik).

Zer moduz?

Inor ikusterakoan egin ohi den kaixoa, honelako formulak erabili ohi dira: Zer moduz (aspaldiko)?; Zer bizimodu dabilzue?; Zer berri diozue (dabilzue)?; Nola zarete (gabilzte)?

Era askotakoak daude erantzunak: Ondo, eta zu?; Ondo, Jainkoari eskerrak, eta zu?; Ondo esan beharko. Zenbait gaztek: «Ondo esan beharko, bestela parre egiten due-ta». Oso politak zaharren erantzun batzuk dira:

— (Ondo esan beharko), ohiak behintzat libratu ditugu-ta.

— (...), osasuna behintzat badegu-ta.

— (...), okerrago ere ibili izan gara-ta.

— (...), aurrera goaz behintzat-eta.

— (...), bagabiltza-ta.

Sarri entzuten dira bariazio konplexuagoekin ere horiek berak: «Zer esango dizut (degu), ondo (esan beharko), ohiak behintzat gaur ere libratu ditugu-ta», etab. Beste erantzun batzuk: «Ba, beti bezalatsu; betiko moduan; hor gabiltz; ez degu gauza apartik; ez degu kejarik (ezin kejariko gara); hainbestean ere, ta zuek?».

Zer moduz, ordez, batzutan «ondo?», edo: «zer, ondo?», galdetzen da. Eta erantzun: «Bai, orain artean»; «Bai, bagabiltza behintzat eta», etab. Gertatzen da beste hori oso ondo ez egotea ere, edo gaizki ere egotea (klinikan bisitatzen duzula, esate baterako). Orduan gutxienez bi erantzun mota entzuten da Zegaman:

a) Ondo ez dagoenak berak: (Zer moduz?) Ba, ttarraka- ttarraka; Oxta-oxta (edo: zutik oxta); Ba, nolabait antxean; Patal antxean...

b) Berak baino gehiago familiarren batek esateko: Nola edo hala bagabiltz; Ba, animo haundirik gabe (oraintxe), baiña...; Koita bat edo beste ere badabilgu (... «halako» gaixo degu-ta).

Gaizki-gaizki egonda ere, ez da zuzenegi horrela aitortzen: «Oso ondo ere ez (ba) oraintxe; Ba, nahikoa lanekin (oraintxe)». Bat oso gaizki egon behar du, honelakorik erantzuteko: Zer moduz? Hementxe (gaixoak berak esateko). Edo:

guzien beharrean oraintxe; lur jota (familiarren batek esatekoak edo baita gaixoak berak ere).

Beste bi erantzun, lehenengoa Billabonan jasoa: Zer moduz?, «askok nahi baino hobeto»; bigarren hau lankide donostiar bati: «(Ni) ondo, baina apaiza hobeto».

Egunaren buruan esatekoak

Goizeko «Egun on», edo «Egun on d(e)jizula Jainkoak» diosari erantzuna «Bai zuri're» izaten da. «Igualente» gaur ez da gutxiago entzuten: nahikoa berria dela, esan didate, hori kalekoa bakarrik dela ere bai. (Gernika-Foruan jasotakoa: «Egun on!», eta: «Jainkoak emon».

Erantzun berdina dute Eguerdia on, A(rra)tsalde on, Gau on (gabon) beste diosalek ere.

Otorduetan «on egin deigula» esaten du errezoa egiten duenak edo nagusiak (batzutan amak errezoa eta aitak hori esan). Jaten ari denari —tabernan, zelaian— «on egin deizula», esan ohi zaio. Eta «eskerrik asko, gusto badezu?», erantzun behar du, jaten ari dena eskainiz.

Gabon (gau on), Gabon pasa eta Ondo lo egin dira, oheratzerakoan esaten direnak. (Berdin eta Igualmente, erantzunak). Umeei, ordea: «Gabon (ta) berri on, paradisoan parte on». Etxe batzuetan ta horrekin, beste batzuetan gabe. Badira umeei esaten zaizkien gehiago ere, baina galdu egin ditut.

Egunaren buruan beste mila aukera egoten da formulak biltzeko, batzuk nahikoa kurioak: adibidez, «barkatu momentu bat (edo: ni altxatzera noa momentu bat)», «gerrikoa askatzera noa (joan behar det)», komunera joateko, etab. Horiek jasota neuzkan paperak galdu egin ditut.

Urtearen burukoak

Hauek ere galdu egin ditut: norbait animatzeko bakarrik ipini dut titulua.

Gogoratzen naiz umea *jaio* eta *bataiatzen* deneko esaldi asko neuzkala (amari esaten zaiona, umeari buruz esaten dena), eta esaldi pila batek «begiko» gaitzari alusio egiten ziola. Bildurra zegoen nonbait.

Urtebetetzekoan

«Urte askotako; Eskerrik asko». Baina beste hau ere badago:

— (Ai, Maria, oso ederra zaude, ez dakit zer, zalameria piska bat, eta) «Ho-

laxe izan (go al zara) urte askotako».

— «Eta zu ikusteko».

(Billabonan: Zer, gaur jai degula, etab., sarrera konbentzional bat, eta formula gero: «Karga bat gehiago bizkarre-rako». Urteak betetzen dituenak: «Bai, urteek beren pixua bizkarrian uzten dute», —«Urte askotan». Historia berdina Larraulen, diferentzia honekin bukaeran: «Urte askoan txapela kaskoan»).

Billabonan tratu egokiari «jendetasuna» esaten diote eta norbait kortes edo dela adierazteko: oso gizarteko, gizalegezko, jendearteko, begiko, dela. Miren Lekuonak irakatsia.

Goierriko jendetasunaren eskuliburua

Izugarri pozik irakurri ditut Edurne eta Amaia Alustizaren «despektiboak». Oso idea polita. Urte asko da ni kortesiazko formulak biltzeko asmoarekin hasi nintzela, baina azkeneko urteotan aldu gehiago egin ditut bildu baino. Inaxita Ormazabalek lagundu zidan asko, ia dena. Egia esan, dena ez bada harena, oker egon daitekeena, ez da izango.

Beharbada sistematiko samar lan eginenez, gazteago batzuek Goierri guztiko «jendetasuna» bildu ahal izango lukete, ez? Lan polita izango litzateke.

(Jarraituko da)

Joxe Azurmendi



Itzuliko ote?

Hotsak: / Lehenik urruneko bat.../ lodia, sendoa./ Bigarrenik, aztorapena.../ jendearen multzoa./ Hirugarrenik, izua.../ soka uretara bait doa.

Une honetan,/ askatuak, urrunduak/ dira.../ maitaleak eta maitatuak,/ urrunduak.../ seme eta senar galduak;/

Ezkerreko masailetik,/ malkoa zaio/ Agedari jauzi.

Hainbat horrelakok/ zuten osatuko/ gure begiek/ edertzen/ apaintzen/ lausengutzen/ maitatzen/ eta bizitzen/ duten/ ITSASOA./

Agedaren eskua/ tinko egoten saiatzen da,/ baina ezinezkoa/ zaio; unea,/ halakoa da:/ Ez/ zaitu asetzen/ hustutzen baizik.../ Ez zaitu inguratzen,/ urruntzen baizik...

Halakoak/bait dira;/ ilunak, asegaizak;/ hutsak, indargeak;/ bortitzak, errukigabeak;/ tristeak, itzulgaizak;/ bizitzaren uneak. (...)

Aitor Jauregi. «Txomin Agirre»
Olerki Saria. 1990

BERTSOLARIAK

Gipuzkoa alde honetan perretxikuak bezala sortzen dira bertsolariak eta ez motelak gainera. 1988. urtean kanporaketa bat egin beharrean gertatu ziren zortzi bertsolari aukeratzeko.

Narbarte bertsolari gazteari galdera hau egin zion gai jartzaileak: «Zortzi lehenengotan sartuko al zara»?

Eta Narbarte bat batean:
Niregana al zatoz
hori galdetzera?
Ni geratu behar naiz
askoren antzera,
batzuk aurrera eta
ni, berriz, atzera.

Ihesa

Hitzegiteari uztera noa
ez baitit inork aditzen,
eta nik ez diot inori aditzen
inork ez dit hitzegiten eta.
Agian egunen batean alde egingo dut
eta ez naiz inoiz itzuliko
ezta ezpata eskuan dudala ere.

Erreleboa frontean

Piztu ezak pospolo bat, kamarada
Hatzak erre zaizkidak niri jada

Soldaduskan

Lerratza behartu ninduten
hainbestexa aldiz

deformaturik irten
nintzen azkenik


Pako Azanza

Ez itzazu hitzak ezkuta,
azkenean ahantzi egingo dituzu eta;
ez itzazu hitzak bazter,
behar dituzunean
ez dira zure lagungarri gertatuko eta;
ez zaitez mutu gera,
guztiek estaliko zaituzte eta;
etzazu isiltasuna gehiegi maita,
barrutik irentsiko zaitu eta.

Zoriona ez da kai bat
itsasontzi bat baino;
baina itsasontzi berezia duzu
zorigaiztoko naufragoa!

bera ez bait da
zu jaso asmoz etorriko,
zuk zeure aldetik
igeri egiteari uzten badiozu,
urgainean olak bilatzen
ahalegintzen ez bazara.

J.I. Iturrioz



Euskaldunaren hizkuntz eskubideak

Gidaliburu deritza; eskuliburu izan zitekeen, neurritz txikiagoa izan balitz. Izan ere, euskaldunak etengabe eskuetan erabiliko duen liburua izan nahi bait du.

Kaleratu berria du EKBk liburu hau, aski originala euskal bibliografian; eta seguruenik erderazkoetan ere bai, euskaldunona bezalako hizkuntz egoerari, juridikoari eta sozialari erantzuten bait dio liburu honek.

Herritarrak bere bizitzako une eta situazio ezberdinetan, bereziki administrazio Publikoaren aurrean euskara erabiltzeko duen eskubidea zein den eta horretaz nola balia daitekeen erakustera dator liburu hau. Bizitzako une juridiko-administratibo horietako bakoitza banan bana azaltzen du. Gainera Administrazio Publikoaren aurrean bete beharreko halako formulario ezberdinen eredu batzuk ematen ditu, erabiltzaileari bideak ireki eta errazteko.

Zazpi legegizonek hartu dute parte liburua egiten. Ez da inola ere erraza gertatu nonbait horren lantzea; eta EKBren aspalditxoko asmoa zen hau ez da orainxe arte bete. Prezio oso apalean zabal-kunde handia emateko asmoa du EKBk, euskara erabiltzeko eskubideetaz kezkatutik dauden eta horietaz baliatu nahi duten euskal herritar guztien eskuetan jartzekotan.



Hankak azkarrak eta burua azkarrago

Iztueta, J.I. Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia. Donostia: Euskal Idazleen Elkarte. 1990.

Batek al daki Zaldibi horretan idazle hainbat irakurle dagoen. Kontua da aspaldi horretan idazle hainbat irakurle dagoen. Kontua da aspaldi honetan Goierritarron liburutegira bildu diren liburu gehientsuenak Zaldibitarrenak direna. Oraingoan, Euskal Idazleen Elkarteak atondutako bildumako 37.az hitz bi: Iztuetaren obra sonatu horren argitalpena apailatu du M Jose Ezeizabarrenak, lehengo liburuari beste eranskin batzuk ezarritik.

Zaldibira gerturatu den guztiak ikusiko zuen bere estatua plaka gabe, sudur gabe eta beso gabe geratu zena. Oraingo askori irudituko zaio hau lotsagabekeria galanta, baina, bistan dena, Iztuetaren garaikide askok lotsagarriago eritziko zion kartzelatik jiran ibilitako gizon alproja hari inolako omenaldirik eskeintzea.

Liburuaren edukinaz ez da zer-esan haundirik; behingoz (eta ez da meritu kaxkarra) izenburuak adierazten du mamiaren nondik norakoa. Liburu honen gorabeherak medio, esan izan da Iztueta izan zela Europako estrineko folklorista (ez al da «azkenetan zegoen herri batena» gertatuko!). Gipuzkoako dantzen berri ematearekin nahasten du Iztuetak euskal

usadioen moralitasunaren apologia, eta dantza lotuaren eta era berean atzeritar eta eliz-zale zenaren kutsuaren aurkako grina (euskal idazle laiko jo den honen eskutik, halajainkoa!).

Euskara gozo eta joria erabili zuen eta aspaldian hain gaitzetsia den Larramendiren hiztegia ondotxo astindu zuen. Ez da, horregatik ez Zaldibiko euskara ez gipuzkeraren eredu garbia.

Baina euskara beragatik alde batetik eta edukinagatik bestetik, ez du Iztuetaren liburuak gaurkotasunik galdu eta denborarik-denbora onduz doan horietakoa dirudi dantzarentzat adina euskal historia eta hizkuntzaz kezkatuta dabilen edozeinentzat.

Maite Erauskin

Anuario de Eusko Folklore. 35. 1988-89.

Atera berri dira bi liburu berri Goierriko bizimoduarekin lotuta daudenak. Egile baten liburu ez baino artikulu bildumak dira. Bata Eusko Folklorearen urtekaria, osorik erderaz, J. Migel Barandiaran omenduz.

Urtekari hau J.M. Barandiaranek berak sortu zuen 1921.an eta bertan euskal etnografian itzal handiko izen diren ikerlari askok hartu dute parte (Aranzadi, Caro Baroja, Lacombe...). Azken alean, 35.ean, ere hamasei egilek hartzen dute parte, joku eta sinisteak, ipuin nahiz tresneriak agertuz. Joan zen gizarte-molde baten aztarrenak, gehienak.

Artikulu hauen artean dago Antxon Agirre Sorondoren lan bat: lehen ere Amezketako argizaiolari buruzko ikerketarik argitaratu zuenak, orain Amezketan aztertutako heriotz inguruko errituekin dator. Lan hau egiteko 1541tik egundainoko eliz-liburuak aztertzeaz gain, bertako jendeari zuzendutako galdekizunak erabili ditu. Galdetuak, Martin Zubillaga, Juan Nizeto Sagastume, Eustakio Sagastume, Karlos Artano, Martina Artano, Rafael Arandia eta Concepcion Zubillaga. Guztiak apaiz, sakristau edo seiora. Lan interesgarria, bertan gorpu argazki askotxo agertzen badira ere. Bat umore-on xamarrez dagoenean irakurri beharrekoa, edozein moduz.

Marife Saturdi

Mendira, tiroak jotzera! «Santa Cruz, apaiz gerrilaria»

Prod.- Anjel Amigo/Zauli (1990).
Gidoia.- Jose Mari Tuduri, Mitxel Gaztanbide, Jose Antonio Vitoria.
Zuzendari.- Jose Mari Tuduri.
Musika.- Amaia Zubiria eta Paskal Gaigne. Antzezleak.- Karlos Zabala, Ramon Barea, Aitzpea Goenaga, Ramon Agirre, Pako Sagarzazu, Agustin Arrazola, Patxi Santamaria, Mikel Garmendia, Joseba Aierbe, Mikel Laskurain. Dist.- Warner Esp. Euskal Herriko zinemetan

Denok dakigu "Bigarren Gerra Karlis-taren Kronika" obra osatu gabea izan zela pairatu zituen finantziazio arazo larriak medio eta horregatixe merezi zuela beste aukera bat Jose Mari Tudurik ekarri ahal izan zezan aipatu gai historikoari buruzko bere ikusmolde zinematografikoa.

Bada, heldu zaio okasio hori eta hasera batean doku-drama baten antzekoa izan-nak karlistaden baitako figura zehatz eta deigarri baten gaineko fikziozko luzeme-traia bati eman dio bidea. Eta, nahiz eta baliabide gehiago izan dituen, garaia da esateko Tudurik ez gaituela komentzi-tzen batere.

Tradizionalismo erlijiosoaren aban-deratu haren bere ikusmoldea erabat errespetuosoa da eta, txarragoa dena, Ra-mon Barearen karikaturarako dohai apartak aprobetxatzeko posibilitate guz-tiak galdu ditu, interpretazio dramatiko pobreegia, guztiz estuaren mesedetan.



Apaiz gerrilariari Tudurik ematen dion tratamendua hain solemne eta urruna da, non tarteka gogorarazten digun estilo bi-blikoan eginiko pelikuletako Jesukristo erakusteko era zilimoniatsuak. Gizon ho-nen, teoriz, erretratu ardatza behar zuena hain zimurtua da, non asmatu beharra daukan errelatoa animatuko duen istorio paralelo bat. Horretan gelditzen da saio desdramatizatzailea, ze "Doncella" deri-tzon mando baten gaineko broma pare bat kenduta, ia liturgikoa den asperduran doa gauzea.

Genero epikotik gertu ibili zitekeen pelikulan benetako akziozko sekuentzi-rik ez da apenas. Errazagoa bait da, "Al-

baniako konkista"n egin zen legez, Her-zog-ek "Aguirre, la cólera de Dios" fil-man narratu zuen "barne" odisearen gur-dira igotzea, eta behar den bezalako, Santa Cruz den antzeko, heroi ilumina-tuen antzeko garuneko batailak eta deli-rioak ilustratzea.

Ejerzitoaren lider hain mendizale eta iskiluzalea erreberentziatu duen han-diustekeria berak eskulotzen ditu gaizki zuzendutako interpreteak. Pako Sagar-zazu salbu, koakzionatuak eta intimida-tuak ikusten zaie, dialogo ponpoxo eta oso pulpitokoak bait dituzte.

Mikel Insausti

Osasun aholkuak


Hortzak bizitza osorako izateko

- 1.- Otordu guztien ondoren garbi itzazu, eta gauean bereziki.
- 2.- Kontuz gozoekin: azukrea da hortzen etsaierik nagusiena. Ez jan goxokirik edo-ta beste gozorik gaez.

- 3.- Janaria moeta guztitakoa eta solidoa jan behar da (barazkiak, azenarioak, ra-banoak, fruitu gogorak, sagarrak,...). Hortzak hozka egiteko eran, mastikatze-ko eginak daude; beraz, lana egin arazi!

- 4.- Urtean behin edo bitan zure dentis-tarengana joan garbiketa egoki bat egitera eta, beharrezkoa bada, berandu izan au-rretik jasan dezakezun gaitza konpondu edo sendatu ahal izateko.

Miriam Berruete



Pernando Amezketarrarenak

Kendu eta haunditu

Beste batean, gizon haundizki batek galdetu zion:

-Zer gauza izan daiteke, kendu eta kendu, zenbat eta gehiago kendu, ta haundiagoa egiten dena?

-Gauza hori asmatzeko --erantzun zuen Pernandok-- ez du gizonak jakintza haundikoa izan beharrik. Betor gure sorora, atxur bat har beza, eta zenbat eta lur gehiago kendu orduan eta haundiagoa zuloa egingo da.

Oilasko hezurak

Behin etxeratu zenean, ez zegoen ez surik eta ez bazkaririk. Nola, orduan, otordua egin? Hona Pernandok zer asmatu zuen.

Erretore etxe aldera joan ziren emaztea eta biaklasterka bizian, emaztea aurretik eta senarra atzetik. Emaztea karrasika begiak aterako balizkiote bezala, senarra deihadarka eta zigor bat eskuan zuela emaztea elbarritzeko zorian.

Erretoreak emaztearen karrasiak entzun dituenean atarira atera da, eta Fernando bere zigorrarekin egiteko bat egiteko antzean ikusten duenean bien artean sartzen da oiuhu eginez:

-Geldirik! Gizona, zer da zatarkeri hau?

-Zer den? Honelako emakumea, txiki-txiki eginda ere ez da behar bezala ordaintzen.

-Zer izan duzue bada?

-Ezer ez.

-Ta ezer ezengatik horrela jarri?

-Bai jauna: ezer ez, ez surik, ez bazkaririk.

-Begira, begira; gaurkoz behintzat, zuentzat bazkaria nere etxean badago eta utzi iezaiozue hasarretzeari.

Pernandok ez zuen besterik nahi, eta pozik hasarre itxura utzi zuen.

Emaztea sukaldara eraman zuten, eta Fernando erretore jaunarekin jangelara bildu zen.

Erretoreak txuliatzeko gogo haundia zeukan egun hartan, eta bazkaritan oilaskoa ekarri zutenean, hexurak Pernandoren aldera jarri zituen eta mamiak berera.

Eretorea parrez gur-gur zegoen Pernandok jartzen zuen aurpegi iluna ikusirik, eta, zerbait esan behar eta esan zion:

-Aiztian emaztea harrapatu izan bazenu, zer egingo zenion?

-Jauna: orain plater honekin egiten dudana bezala lepoa bihurrituko nion.

-Eta platerari buelta emanez, mamiak bere aldera ekarri eta hezurak erretoreari utzi zizkion.



«Olentzerok»

Olentzero bezperan bi laguntxo elkartu ziren eta bata besteari esan zion:

-Zer eskatu diozu Olentzerori?

-Nik «Tampax» bat.

-Eta hori zer da?

-Ba ez dakit, baina zaldiz ibiltzeko, igerian egiteko, eskiatzeko e.a. balio duela esan didate.

«Menua!»

Iruñeko alderdi zaharreko jatetxe batean erriberako neska bat sartu da, tabernariari adarra pixkat jotzeko asmoz. Tabernariak:

-Zer nahi duzu?

-Mesedez, elefante-xerra bat ekarriko al didazu?

-Tabernako mutila sukaldara doa serio eta itzultzean:

-Etxeko nagusiak esan dit ez duela xerra batengatik elefantea hasiko.

«Laguna?»

Badoaz bi lagun afaltzera, eta mahaian jarrita direla, galdetzen diete:

-Zer afalduko duzue?

-Nik txuleta bat

-Nik berdin

-Badator mutila bi txuletekin, bata bestea baino txikiagoa, eta lagune-tako batek handiena hartzen du. Besteak harrituta:

-Baina zer edukazio dek hori?

Eta besteak:


-Baina zuk zer egingo zenuke ba?

-Nik? lagunari handiena utzik!

-Hor daukak bat txikiena!

Iñigo Eguren

HOROSKOPOA		UXUE AGIRRE	
♈ ARIES martxoak 21 — apirilak 20 Hain erraz hasarraz gero, ez zaitu inork ja-sango, denek zure ondotik alde egingo dute.	♎ LIBRA irailak 24 — urriak 23 Osasunaz ez zabilta oso ongi; mantzaila edaten hasia hobe duzu larunbat gauean.		
♉ TAURUS apirilak 21 — maiatzak 20 Zure inguruko jendea itxututa gelditu da zuk duzun itxura ikusteaz batera.	♏ SCORPIUS urriak 24 — abenduak 23 Goizetan txistuka joaten zara lanera. Lanki-deek ez zaituzte ulertzen. Jarrai zurean.		
♊ GEMINES maiatzak 21 — ekainak 20 Hainbeste negar eginez gero, zure herriko errekek gainetza egingo du. Negarti hori!	♐ SAGITARIUS azaroak 23 — abenduak 23 Alproja samarra zarela dirudien arren, pertso-na tradizionalista eta 'karka' zara.		
♋ CANCER ekainak 21 — uztailak 20 Jakin badakizu tripa-azpiko txilborra bajatze-ko onena kirola egitea dela baina...	♑ CAPRICORNIUS abenduak 22 — urtarrilak 20 Afari eta bilera guztietan zeuk izan behar duzu protagonista. Noizean behin besteei ere utzi.		
♌ LEO uztailak 21 — abuztuak 23 Zapaten lokarriak lotzeko ere gai ez bazara, parrandaren eragina dela konturatu zara.	♒ AQUARIUS urtarrilak 21 — otsailak 18 Osoek beldura ematen diruzten arren, ez pen-tsa 'kakatia' zarenik. Denei gertatzen zaie.		
♍ VIRGO abuztuak 24 — irailak 23 Zuk dakizun lagun horrekin amets egin duzu eta gaur ikusi duzunean gorritu egin zara.	♓ PISCES otsailak 19 — martxoak 20 Amodiozko kartak jasotzek txoratzen zaitu baina, noizean behin ere idatzi behar dira.		




Etorkizunaren erronka

Gertu dagoen erakundea dugu
kutxa, garai berriei aurre egiteko.
Teknika- eta giza baliabiderik
eraginkorrenekin, gailentzeko.
Beharrian berriei egokituriko maila
bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
Alor guztietan aurrera egiteko.
Etorkizun gero eta lehiakorrago
baterantz.

El reto del futuro

Kutxa es una entidad preparada para
afrontar los nuevos tiempos.
Para destacar, con los medios
técnicos y humanos más eficaces.
Para innovar, con servicios de
primera línea, adaptados a las nuevas
necesidades.
Para avanzar en todos los campos.
Hacia un futuro cada vez más
competitivo.



kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san Sebastián